

Emakumeekiko sexismo maila osasun arloko profesional eta ikasleengan: lehen hurbilketa

Olatz Goñi-Balentiaga¹, Jone Aliri¹, Sara Prego-Jimenez¹, Eva Pereda-Pereda¹, Joana Pérez-Tejada² eta Ainitze Labaka³.

¹Psikologia Klinikoa eta Osasunaren Psikologia eta Ikerketa Metodologia Saila, Psikologia Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU). ²Onkologikoa Ospitalea. ³Erizaintza II Saila, Medikuntza eta Erizaintza Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU).
Harremanetarako helbide elektronikoa: olatz.goni@ehu.eus

SARRERA

Sexismoa: sexu biologikoa jarraikiz esperotako ezaugarri eta jokaera desberdinen ondorioz pertsonak diskriminatzea.

Osasun arloko genero alborapena: "osasun zerbitzuetan eta ikerketan parekoak ez diren jokaerak eragin ditzakeen eta hortaz sexu batentzat diskriminatzailea litzatekeen emakume eta gizonen arteko berdintasun eta desberdintasunen -izaerari, jarrerari zein arrazoinamenduari dagozkionak- planteamendu okerra".

Ikerketek emakume eta gizonen arteko desberdintasunak daudela agerian utzi dute!
Miokardioko infartu akutua pairatzen duten pazienteengan baliabide ezberdintasunak:



Sexismo anibalentea:

Etsaitasunezko sexismoa (ES): emakumeak ahulagoak kontsideratu eta beraiekiko jarrera diskriminatzaileetan oinarritzen da.

Onginahiko sexismoa (OS), antzematen zailagoa dena eta emakumeak babestu beharreko izaki ahul bezala kontsideratu eta aldi berean, emakumei dagokien ama eta emazte rol "naturala" gurtzen duten jarrerez osatua.

HELBURUA

Osasun profesionalen sexismo mailaren inguruko lehen hurbilpen bat egin eta ikerketa sakonago bat egiteko informazio baliagarria eskuratzea.

METODOLOGIA

Parte-hartzaileak: N = 89 % 87 emakumeak Adina: \bar{x} = 30,11 (DT = 9,42)
% 12 gizonak
% 1 ez binarioa

% 65 erizain profesionalak
% 14 erizaintza ikasleak
% 14 mediku profesionalak
% 7 medikuntza ikasleak

Galdetegiak: % 94a Hego Euskal Herritarra (% 78a Gipuzkoarra).

Lan esperientzia \bar{x} = 6,42 urte (DT = 7,56).

Ambivalent Sexism Inventory (ASI, Glick eta Fiske, 1996).
Ambivalence towards Men Inventory (AMI, Glick eta Fiske, 1999).


Datuen analisia:

Jamovi 1.6.1. eta Mplus 8 software-ak erabiliz.


EMAITZAK:

TESTEN EGOKITASUNA

Fidagarritasun egokia: ASI α = 0,90; ES α = 0,88; OS α = 0,80. Diskriminazio indizeak (> 0,56).
Baieztatzeko AF eredu teorikoaren doikuntzaren egokitasuna adierazten du (CFI = 0,979; TLI = 0,974).
Errore maila altua litzateke (RMSE = 0,167).



EMAKUMEKIKO ETA GIZONEKIKO SEXISMO MAILEN KONPARAKETA



POPULAZIO OROKORRAREN ALDEAN

25. pertzentiletik behera: Emakumeekiko ES → Gure laginaren % 27
Emakumeekiko OS → Gure laginaren % 24
75. pertzentiletik gora: Emakumeekiko ES → Gure laginaren % 9
Emakumeekiko OS → Gure laginaren % 6

ONDORIOAK

- Lagin kopuruak eskuratutako emaitzen irismena mugatzen duen arren, hurrengo ikerketa zabalago bat burutu ahal izateko informazio baliagarria eskaini du lan honek.
- Emaitzek ASI galdetegiaren egokitasuna bermatzen dute.
- Gizonekiko emakumeekiko baino etsaitasun sexismo altuagoa azaldu dute, baina ez dute desberdintasunik azaldu onginahiko sexismoan.
- 25. pertzentiletik behera laginaren portzentai altuagoa kokatzen da 75. pertzentiletik gora baino.

ETORKIZUNEN NORABIDEAK:

Gai honen inguruko ikerketa konplexuago eta zabalagoaren beharra legoke:

1. Lagin handiago eta heterogeneoago batean burutua.
2. Laginaren lehen hizkuntzara egokitzea ezinbestekoa litzateke euskal gizartearen sexismo mailaren ezagutza hobea izateko.